2011ko ekaina

Ttiki-ttaka

21 Zk.

euskaldunon aldizkaria

aurkibidea

03 Editoriala
04 Jantzi berria
06 Herriz herri
06 Bastida
10 Biasteri
14 Eltziego
15 Lantziego
17 Oion
20 Viana
21 Erreportaia
29 Non dabil...?
31 Bakarhizketa
32 Denborapasak
36 Euskarapatada
38 Non gogoa han zangoa

EGILEAK

Ttiki-ttaka

Euskaldunon elkartea

HELBIDEA

Oiongo IKA euskaltegia

Diputazio Kalea,32

Oion

errioxa@ikanet.net

ASSA Ikastola

MAKETAZIOA

María J.

marrausi@yahoo.es

Udaberrian izan ohi dugu aldizkaria esku artean, baina, oraingo honetan, **Ttiki-ttaka** sortu zela 20 urte betetzear daudela, udazkenaren atarian kaleratzea erabaki genuen.

Hogei, bai, hogei urte betetzera goaz, Kripanen ospatu zen Ikastolen egun batean, elkartea osatzeko asmoa erakusten zuen paper hura banatu genuenetik. Geroago etorri ziren izena, logoa, estatutuak eta abar. Baina, utz ditzagun oroitzapen eta balorazioak ordurako, 20 urte betetzen dituzunerako.

Aldizkaria ikasturte berriarekin batera argitaratzearen arrazoien artean, horixe bera dago, ikasturte hasieran banatuta hobeto aprobetxatzeko aukera, alegia. Baina, batez ere, Euskal Kultur Asteburua, EKA, jaso ahal izatea da zergatia. Izan ere, elkarte eta jende askoren arteko lanari esker atera ohi da aurrera festa hau, eta, pena da kaleratzen dugun aldizkarian lekurik ez izatea. EKA maiatzean ospatzen baitugu eta ekainean aldizkaria kaleratzekotan maiatzerako amaituta eduki behar izaten dugu.

Esku artean duzun ale hau aurreikusi genuenean, uste genuen herrietako alkateei eginiko elkarrizketen emaitzak izango zuela pisurik handiena. Arabako Errioxak badu euskara teknikaria, euskara zerbitzua, hau antolatzeko, teknikariaz gain, jende eta erakunde asko ari da lanean, baina, oraindik ere, behin eta berriz aldarrikatu dugun herriz herriko instituzioen inplikazioa ez da behar adinakoa. Eta horixe erakutsi digute elkarrizketok: 15 alkateri bidali zitzaion galdetegia eta 4k erantzun zuten.

Kolaborazioekin jarraituz, aipatzekoa da Eduardo Aznar Martinezena (Bartzelona). Maiatzean, Logroñoko Laminiturri elkarteak antolatuta, Eduardok bere “El Euskera en La Rioja. Primeros Testimonios” liburua aurkeztu zuen, lan interesgarria, benetan. Ale honetan aurkituko duzuen artikulua kolaborazio luze eta aberats baten hasiera izatea espero dugu. Bestetik, Guillermo Marinaren eskutik Bastidako frantziskotarren San Andrés de Muga izeneko komentuaren berri izan dugu. Marina pasa den udazkenaz geroztik indusketa lanetan ibili da bertan, beraz informazio berri-berria berorrek dakarkiguna. Azkenik, IKA euskaltegian zortzi urtez ibilitako Pello Aizpuru Lesaka azpeitiarra egun non dabilen jakin nahi izan dugu, eta haren bizitoki berrira abiatu ginen elkarrizketa egitera.

Gainontzean, ohiko atalak aurkitu dituzue 21. ale honetan, ikastetxe batean eta bestean egindako ikasleen lanak, euskaltegikoenak, Arabako Errioxako zenbait elkarteri eginiko elkarrizketak, urtean zehar egin diren euskarazko zenbait ekitaldiren berri ematen duten artikuluak... eta jakina Biasterin EKA izan zenekoa.

Kaleratzeko dataz gain, aldizkari honek beste bi berritasun ere baditu, edo hobeto esanda, bi berritasunen berri emango dizue askori. Bata: elkartearen logotipoa da, hogeigarren urteurrenera iristen ari den honetan soineko berria jantzi digu **Ttiki-ttaka**k; eta bestea: janzte kontuekin jarraituz, kamiseta. Aurreko aldean zilar koloreko marrazkia duen kamiseta beltz eta urdin horiek dira ia 20 urtetan elkarteak salgai jarri duen lehenbiziko gauza, eros ezazue inguruko ikastetxeetan.

Ale hau irailean argitaratu izanak ez du esan nahi hemendik aurrera hala egingo dugunik; baloratu eta nork daki, agian, EKA aurreratzea erabakiko dugu. Orain, goza ezazu aldizkariaz eta ea zer ematen digun hastera doan 2011-12 ikasturteak! ■

Elkarteak soineko berria

Ttiki-ttakak itxura berritzeko asmotan, 2010ean logo-lehiaketa abian jarri zuen web orrian. 24 logo jasota horien artean egokiena aukeratzeari ekin genion. Ez zen, ordea, lan erraza izan guztiek halako xarma baitzuten, baina azkenean erabaki behar, eta ikusten duzuen hauxe izanen da aurrerantzean irudikatuko gaituena. Beraz, hainbeste urtetan izan dugun logo zaharrari agur esan, eta berriari ongi-etorria eman beharko diogu.

Egileari egindakoaren nondik-norakoak galdetu beharrean geunden eta halaxe egin genuen. Hauexek esan zizkigunak:

"Egia esan, neurri batean logo berria egina zegoen, izan ere, aldizkariak aspaldi ibiltzen duen orrialde-zenbaketaren ereduari erreparatu nion, orrialdearen behealdeko ertz batean azaltzen den zerari, alegia. Ez dakit, betidanik gustatu izan zait, eta horixe inspirazio-iturria izan dela esan dezaket. Horixe oinarri hartuta, gerora buelta batzuk eman nizkion eta zenbait proba egin ondoren hauxe iruditu zitzaidan egokiena.

*Nire ustez "**Ttiki-ttaka**k" modu garbian eta hizki modernoagoez agertu behar zuen, orrialde-zenbaketan bezalaxe eta, horregatik, saiatu naiz eredua mantentzen. Gainera "T" hizkia handia eta markatua izateak halako babesa ematen die besteei... ez dakit, euskarari babesa, euskara babesten dutenei babesa edo... Ezkerraldean eta goialdean azaltzen diren puntutxoak ere interesgarriak iruditu zitzaizkidan eta nire erara moldaturik, beste esanahi bat iradoki zidaten: 15na puntu jarri nituen goiko zein ertzeko marran, Arabako Errioxa osatzen duten beste herri, alegia. Hala ere, eskuineko puntutxoek errepideen lerro etena gogorarazten zidaten eta ideia horrekin lotu nituen. Herriak batetik, eta oraindik ere ibili beharreko bidea bestetik.*

Eskuinaldean, berriz, oinatzak Ttiki-ttaka (tiki-taka) izenarekin ederki egokitzen direnak, berez ibiltzearen ekintza adierazten baitute. Aitortu behar dut, ordea, ez nintzela oso pozik geratu duten formarekin; arruntegiak direla esango nuke eta agian buelta gehiago emango diot kontu honi.

Bestetik, bi kolore baino ez ditut erabili, zuria eta beltza, alegia. Dena den, zertarakoaren arabera horiek alda daitezke: urdina eta zuria, beltza eta horia, grisa eta beltza... Kamisetak, kasu, politak geratu dira grisa, urdina eta beltza tartekatuz. Nik uste diseinuak jokoa ematen duela, Baina esan bezala, oinatzen kontu horrek ez nau guztiz konbentzitzen...

Tira, horiexek egilearen esandakoak labur. Itxurak garrantzi handia duena jakina da, eta garaiaren arabera batera edo bestera janzten gara, tarteka ere zaharra zena berriro modan jarri arren. Itxuraren munduan bizi omen gara, eta kanpora begirako itxurari erreparatzen diogu gehienetan. Produktu baten itxura erakargarria bada, arrakastatsua izateko aukera gehiago omen dauzka, horretan baitatza publizitate mundua. Kanpoko itxuragatik erosten omen dugu barrukoari gutxiago erreparatuz, produktuaren kalitateak berorren edukiak edo barruak erabakitzen duela ezagutu arren.

Jakina, kanpokoa eta barrukoa bat badatoz, produktu bikain baten aurrean egongo ginateke. Baina ongi dakigu halakorik ez dela maizegi gertatzen.

Ez dugu publizitate edo itxuraren mundu horrekin gehiago luzatu nahi. Ez dakigu gure soineko berri hau guztion gustukoa izango ote den, edo-eta itxura berriari esker lagun gehiago inguratuko zaizkigun. Nolanahi ere, soineko berriak barrukoaren isla izan behar duela uste dugu; barrukoa kanpokoa bezain erakargarria eta sendoa, alegia.

Soineko berrira ederki egokituko den gorputz sendo eta osasuntsua lortuko ahal dugu **Ttiki-ttaka**n. ■

Graffiti ikastaroa

NEREA FERNÁNDEZ

(13 urte)

Margotzea gustatzen zait eta horregatik erabaki nuen izena ematea. Lehenengo aldia da graffiti bat margotzen dudala eta oso dibertigarria iruditu zait.

MAIDER MARTÍN

(12 urte)

Kalean ikusten ditudan graffitiak asko gustatzen zaizkit eta nik ere margotzen ikasi nahi nuen. Oso dibertigarria izan da eta duda gabe errepikatuko nuke ikastaroa.

OIER GARCÍA

(15 urte)

Graffitiak egitea gustatzen zait baina orain arte egindakoak beti ezabatzen diztuztenez, aukera paregabea iruditu zitzaidan benetako graffiti bat egiteko. Oso dibertigarria izan da eta duda gabe errepikatuko nuke!!!

MAIDER MARTÍN

(15 urte)

Ekintza gustatu zitzaidan eta lagunekin egoteko aukera ematen zuenez, izena ematea erabaki nuen. Oso dibertigarria izan da, pena da horrelako ikastaro gehiago ez egotea herrian.

Abendua eta urtarrila bitartean, **Ttiki-Ttaka**k antolatuta eta Bastida Ikastolak bultzatuta, graffiti ikastaroa eskaini zaie Bastidako eta inguruetako nerabe euskaldunei. Hiru orduko lau saio izan dira guztira eta horretarako abenduko hiru larunbat goiz eta urtarrileko beste bat erabili diztuzte.

Helburua nerabeek euskaraz eta gustuko ekintza batekin disfrutatzea izan da, eta horrela gertatu dela esan daiteke. Hamaika pertsonek hartu dute parte, eta irudietan ikus daitekeen bezala, igerilekuetako pistetako hormak apaindu eta koloreztatu dituzte.

Dibertsioaz aparte, gazteen esanetan graffitiak hausnarketarako ere balio du:
HERRI BERDE BATEN ALDE, BASTIDAKO GAZTEAK!!! ■

San Andrés de Muga

Pasa den udazkenaz geroztik Bastidako San Andres de Muga izeneko komentuan, egun erabat suntsitua, indusketa lanak hasi ziren arkeologo eta aditu talde bat proiektu bati heltzeko asmotan. Delako proiektua Bastidako Udalak finantziatu eta *Arkeodok* enpresak zuzenduta dago. Lanean ibili den Guillermo Marina teknikariak zuzeneko berriak emango dizkigu horren gainean ondoko lerroetan.

San Andrés de Muga frantziskotarren antzinako komentua dugu, Bastidako hegoaldean kilometro batera kokatua zegoena. Izena, leku berean zegoen san Andrés apostuluaren omenez egindako baselizatik datorkio. Horren aztarnak oraindik ere ikus daitezke. Lehenbizi “de la Estrella” komentuko fraide jeronimotarrek okupatu zuten, Toloñoko Santutegia ere zuzentzen zutenak. 1447an Pedro de Castrok, Kalagorriko apezpikuak, frantziskotarrei laga zien bi baldintza jarriz: ez zeukaten “arimak sendatzerik”, eta bestetik, Aita Santuarengana jo behar zuten emandakoa berorrek berretsi zezan. Urte berean, ekainean, Nicolás V.ak emaria berretsi zuen. Emate-dokumentua 1447ko urriaren 4an gauzatu zen. Rodrigo de Villacre anaiak komentua egokitzeko eta handitzeko ardura hartu zuen orduan. 1493an Bastidako Udalbatzak “de Barajuela” izeneko iturria eman zien frantziskotarrei.

1580an aurreneko testamentu-legatuak ageri ziren komentuaren mesedetan. Plácido de Pinedo anaiak, Bastidakoa berau, “Los Parrales“ (gerora “de los Frailes“ deitua) izeneko iturriko uraren kanalizazio-lanak hasi zituen komenturaino iristen zirenak. Badirudi Pinedo hil ondoren obra bukatzeko baliabideak agortu egin zirela. Baina orduantxe ongile bat agertu ei zen, On Miguel de Gamboa hain zuzen, Bastidan jaioa. Hari esker Pinedok hasitako lanak amaitzea lortu zuten.

Antza denez, urtean zehar baziren egun jakin batzuk herria eta komentuaren arrteko harremanak estuagoak zirenak. Horrela San Marcos egunean erregute-prozesioa egiten zen komenturaino; era berean urte luzez Ostegun Santuko prozesioa komenturaino ailegatzen zen; Gorpuzti-egunean komentuko komunitatearekin pasatzen zuten eguna zenbait herritarrek; azkenik, data garrantzitsuak ziren San Frantzisko eta San Andres egunak.

Frantziskotarrek Kantabriako probintzian zuten komenturik onenetakoa omen zen San Andrés de Muga. 50 lekaide izatera iritsi ziren, eta Teologia eta Arte eskola sonatua izan zen. 1835ean abandonatu zuten, Zurbano jeneralaren tropak ia erabat suntsitu ondoren Karlistada garaian. Mugako komentuko antzinako artxibo zaharra Zarautzko frantziskotarren komentuan dago gordeta, ederki kontserbatzen dena.

Komentuan egindako indusketa-lanak datu garrantzitsuak ari dira ematen. Azterketa hauei esker Erdi Arotik XX. Mendera arteko sekuentzia historiko garrantzitsua eta luzea antzeman dugu. Gainera, 1918ko zenbait argazkik egiaztatzen dute maiatzetik maiatzera bitartean eginiko indusketa-lanen 2. fasean aurkitutako egiturak.

Indusketa-lanek agerian utzi dituzte komentuaren eraikuntza nabarmenenak, batetik komentua bera izango zena, eta bestetik eliza. Komentuaren barrualdean ongi zehaztutako hainbat gune antzematen dira, hala nola, klaustroa -ur putzua eta guzti-, korridore harriztatuak,



klaustroaren inguruko bidezkak, angeluzuzen formako Kapitulu-gela eta zutabeak eta gela ugari komentuaren hegoaldean kokatuak. Bestetik, latsarriak okupatzen zuen gunea eta ubidea zehaztu ahal izan dugu.

Komentuaren iparraldean eliza dago klaustroaren iparraldeko korridorearekin lotuta, eki-mendebaldeko orientazioa duena. Elizaren atea ipar-mendebaldera begira dago eta bere garaian gotortua eta harriztatua zegoen indusketa-lanek agerian utzi dutenez. Lau kapera zituen inguruan eta beste bat eliza eraiki ondorengoa, geroago eraikia. Erdiko nabean bi hilerri aurkitu ditugu. Koru baxuaren aldean farideena eta erdialdean hilerri laikoa. Hilobiak frantziskotarren Jagoleen Liburuan ("Libro de Guardianes") deskribatuta daude zenbait hildakoren izen-abizenak agertzen direlarik. Guztira 78 hiboli aurkitu dira eki-mendebaldera begira daudenak.





Indusketa-lanen aurreneko fase honetan komentu garrantzitsu honen egiturak zehazten eta agrian uzten saiatu gara. Lan nekeza izan da, izan ere, komentua dagoen tokian hondakindegi kontrolatu gabea bilakatu zen eta urte luzetan mota guztietako zaborrak erabat estaltzen zuen gunea.

Hurrengo fasean hobeto zehaztuko ditugu komentuko gune bakoitzaren erabilera eta funtzioa, eta era berean, San Andrés baselizaren kokapen zehatza. ■

Ateak zabalik



Aurreko apirilaren 15ean Ate Irekien jardunaldiak izan ziren Biasterin. Aurrerantzean bisitarientzat ikusgai izango diren bi toki paregabe ireki zituzten egun osoz. Bata Abadia-dorrea, geroztik irekita jarraitzen duena, eta bestea, zeltiberiarren garaiko urmaela; azken hauxe oraindik itxita hornitze-lan batzuen zain.

Has gaitezen Abadia-dorrearen ingurukoak aipatuz. Errege-erreginen Andra Mariaren elizaren pare-parean dagoen dorretzarra bi garai desberdinetan eraikia izan zen, XII. mendetik XIV. mendera bitartean. Herriaren defentsarako erabilia izan zen, “La Batería” izeneko gunean zegoen gazteluarekin batera. Gazteluaren aztarnik, ordea, ez da egun, beraz Abadia-dorrea Biasteriren defentsarako zutik dirauen aztarna bakarrenetakoa dela esan daiteke.

Proiektu andana inguratu zaizkio dorreari, eta azkenean bisitariei irekitzea erabaki dute hainbat egokitzapen eta berritze-lanak burutu ostean. Lau pisu igo behar dira kanpaiak dauden tokira iristeko, eta benetan merezi du goitik ikusten denaz gozatzea. Gainera, dorrearen barrualdea herriaren historiaz jabetzeko zenbait argibide-panelez hornitu(ko) dituzte. Segurtasun-neurriak direla eta, 20 laguneko taldeak osatzen dira gehienez bisitaldi bakoitzeko. Euro baten truke esperientzia bikaina. Hauxe da, zalantzarik gabe, eman zaion erabilerarik egokiena; izan ere, bertan, luzaroan, Gerra Zibileko aztarnak egon dira gordeta. Biasteriren Adiskideen Elkarteak kale nagusian zuen museoa erori zenean bertara eraman zituzten hainbat gauza 1976ko urrira aldera, Gerran erabilitako bonbak, lehergailuak eta granadak, besteak beste; gehienak egoera onean eta lehertzeko arriskua zutenak. Baina hori beste istoriotxo bat da.

Zeltiberiarren garaiko urmaela ezinbestez bisitatu beharreko beste gune bat dugu. Ttiki-ttaka aldizkariaren 17. alean horri buruzko artikulua idatzi genuen, 2006ko ekaineko alean, hain zuzen. Orduantxe urmaelaren egoera tamalgarria eta haren inguruan eginiko lan-suntsiketa salatu genituen. Hemerotekara joz gero, irakurlea ederki asko jabetuko da gorabehera horietaz prentsan ere dezente ageri baitzen (*El Pais, 1999/02/11. Eduardo O. de Arri / El País, 1999/02/13*...).

Urmaela herriaren hegoaldean dago kokatua, garai hartan eraiki ziren lurpeko aparkalekuen ondo-ondoan. Aurkikuntzari esker ez zen aparkaleku gehiagorik egin, eta urtetan bizirik irautea lortu du museo bilakatzea eta estaltzea erabaki zuten arte.

Proiektua bukatzeko gauza ugari falta diren arren, aurki irekitzeko asmoa dute. Bertan garai hartako aztarnak, bideo-muntaiak eta abar izango dira ikusgai.

Apirilean, Ate Irekien Jardunaldien egunean, horrenbeste urte igaro ondoren berriro ikusteak halako zirrara eragin zigun bertaratu ginen batzuoi, tarteka tristura eta haserrea azaleratzen zirelarik. Izan ere, aztarnategiaren gainean bestelako geruzetan aurkitutakoa betiko galdu izana ez da erraz ahazten. Gorabeherak gorabehera, herriaren iragan oparoaren erakusgarri dugu urmaela, benetan bisitatzea eta zaintzea merezi duena.■

Biasteriren Adiskideen Elkartea eta nire istorio txikia

75 urte baino gehixeago dira Biasteriren Adiskideen Elkartea sortu zenetik; agian Arabako Errioxan dagoen zaharrenetakoa. **Carlos Sáenz de Tejada** eta **Álvaro de Gortazar**ren ekimena izan zen, biak Biasterin jaioak. Gerora, bertako beste aditu batzuk eta uda pasatzera joan ohi ziren hainbat pertsona elkartu ziren aipatutako bi horiekin. 1934ko abenduaren 1ean osatu zuten elkartea, estatutuak ontzat eman eta Arabako Gobernu Zibilera eraman eta gero.

Ondoko helburuak zituen elkarteak: Biasteriko aurrerabide morala, kulturala eta materiala bultzatu, orduko eta garaian garaiko Udalari laguntza eskainiz diskriminazio politikorik egin gabe; era berean, egindako guztiak ez zuen inolako eraginik izan behar Udalaren funtzioetan.

Elkartearen aurreneko lana Biasteriko museoa osatzea izan zen, horretarako hainbat dokumentu, liburu, oroigarri, objektu, altzari eta abar bilduz. Lehenbizi Samaniego kalean zuten egoitza eta geroxeago Salazarko Markesen etxera eraman zuten, eta bertan 1976ra arte egon zen.

Arestian aipatu bezala hainbat gauza biltzeari ekin zioten museoa osatzeko asmotan eta etengabe jardun zuten zeregin horretan bilduma garrantzitsua izan arte mota askotako materialak bilduz. Gerra Zibilaren garaian ere materialak biltzen jarraitu zuten, baina oraingo honetan Gerraren beraren gaineko gauzak bilduz: objektu pertsonalak, granadak, orotariko armak, banderak, propaganda eta abar. Euskal Herrian dagoen hildumarik bitxiena eta osatuena litzateke egun museoan dagoena. 1972an Markesen etxeko aurrealdea erori egin zen, hala ere, museoarentzako guneak zutik jarraitu zuen. 1976an Abadia-dorrera eraman zituzten material guztiak eta bertan egon ziren urte luzetan erdi ahazturik.

Elkartearen sortzaileak 50. hamarkadan zendu ziren, eta geratzen ziren bazkideek lagun-talde itxia baino ez zuten osatzen orduan. Beraz era sinbolikoan mantendu zen elkartea, kontu handirik egin gabe. Elkartearen gainbehera zen.

1983an Biasteriko auzokide batzuek, 88 inguruk, elkartean sartzeko eskaera egin zuten. Euren helburua elkartea berriro martxan jartzea eta berau bultzatzea zen. Horrela, lanean jarri eta hainbat ekitaldi antolatzen hasi ziren. Bestetik, estatutu zaharrak aztertu eta etapa berrira egokitu zituzten. Era berean, urtetan bildutako materialak gordetzeko eta erakusteko lokal bila hasi ziren. Museo berria osatzeaz gainera, bestelako ekimenak ere egin zituzten elkartekide berriek: Berberanako baseliza eta inguruak errekuperatu, ekologia-batzordea sortu, urtean zehar hainbat ekitaldi zehatz burutu, turismo bulegoaren proiektua bultzatu... Era honetan elkartea herrira zabaldu zen eta bazkide berriak bereganatu zituen, bertakoak, nahiz kanpokoak.

Nire istorio txikia

Elkarte berria osatzen zuten batzuk ezagutzen nituen eta haietako batzuen bidez ere ezagutu nituen elkartearen gorabeherak eta nondiknorakoak. Ordurako egoitza berria zuen elkarteak eta bertan museo berria jartzeko asmotan zeuden. Bitxia bada ere, lehengo museo zaharra zegoen toki berean dute egun museoa, eroritako Markesen etxea zegoen tokian, alegia. Oraindik ikusgai ez bazeuden ere, arkeologia aztarna bikainak, material etnografiko ugari, liburu zaharrak, Karlistadetako gauzak, dokumentuak eta abar zituzten, urtetan bildutako material ugaria eta anitza; Abadia-dorrean luzaz lotan izan zena. Alabaina, oraindik ere bazen gauza ugari Abadia-dorrean, Gerratean bildutako gauzak, hain zuzen.

Guillermo Marinak, elkarteko kideak eta gerora museoaren zuzendaria izango zenak, gonbidatu ninduen aztarna horiek ikustera Abadia-dorrera. Hainbat egurrezko kutxetan sartuta zeuden materialak nahastuta, bakoitzak etiketaxoa zuela: cajón 1, pasquines, cajón 2, banderas, cajón 3, granadas, percutores, balas... (¡precaución!)... Gauzak ikusi ahala denboraren tunelean sartuta bezala sentitu nintzen tarte batez. Zenbait gauzek, gainera, museoan izan zireneko garaiko etiketa zuten lotuta. "*Pañuelo capturado a separatista vasco. Frente de Villarreal*" zioen etiketako batek, garai hartako erretorika erabiliz. Parean luze eta tinko hegazkinetako bonba astuna, espoleta falta zitzaiona, baina lehertu gabea. Espoletak utzitako zulotxoan garai guztietako papertxoak edo-eta goxokiak biltzekoak zeuden, auskalo zein urtetako umeek sartuak. Izan ere, bertako batzuek esanda ondo gogoan dute bonbarekin jolastu izana.

1992an Gasteizera lanera jo nuen berriro, luzaroan Errioxako hainbat herritan aritu eta gero, inoiz bihurtuko nintzen jakinda. Hala ere, uste baino luzeagoa izango zen Gasteizko egonaldia. 1994. urtea zen, Gasteizen nenbilen orduan, baina tarteka Biasterira joan ohi nintzen lagunekin egotera. Gasteizko IKAk urtero bezalaxe Kultur Astea ospatzen zuen, eta niri egokitu zitzaidan batzorde horretan egotea. Orduantxe pentsatu nuen sekulako aukera zela Abadia-dorrean zegoen bildumarekin Gasteizko Cordoi Etxean Gerra Zibilaren inguruko erakusketa egitea. Guillermorekin jarri nintzen harremanetan eta asmoa azaldu nion. Ideia ona iruditu zitzaion berari ere eta berehala jarri ginen lanean. Lehenengo lana Abadia-dorrean zeuden materialak atera eta egun elkarteak duen egoitzara eramatea izan zen. Horretarako bertako beste bi lagunek lagundu ziguten, **Oskar López de Samaniego**k ("Gori") eta **Fernando Serrano**k ("El Moro"). Oso ohikoa da Biasterin -eta Errioxa osoan esango nuke- ponte-izena erabili beharrean goitizena aipatzea. Gehiena garraiatu ondoren, Ertzantzari deitu egin genion azken gurditxoak zama arriskutsua zeramalakoan. Berehala gerturatu ziren eta Andra Mariaren plaza sokaz hesi zuten inor pasa ez zedin. Gure sorpresarako egoera ezin hobean zeuden lehergailuak eta mota askotako munizioa zeraman horretarako erabili genuen gurditxoak. Gasteiztik ere etorri zen polizia, lehergailuak desaktibatzen aditua zena. Segidan material hura bildu eta Arkautera eraman zuten dsaktibatzera.

Ezusteko hura iragan ostean, inbentario berria egiteari ekin genion asteburuetan, nolabait libre genituen egunetan. Hiru urte inguru eman genituen horretan objektu bakoitzaren deskripzioak eta fitxak osatuz, ordu mordoa pasatzen ari ginela apenas ohartu gabe puzzlea noiz osatuko. Inbentario zaharrarekin alderatuta gauza piloa falta zela ohartu ginen, armen kontuari zegokionez, batik bat.

Armarik batere ez zegoen, eta gainera inork ez zekien (edo ez zuen jakin nahi) arma horiek non egon zitezkeen. Alabaina, bilduma garrantzitsu eta ezohiko baten aurrean geunden zalantzarik gabe. Gerran izandako soldaduen gutunak, karnetak, argazkiak, zigilu militarrak, sindikatoen arteko korrespondentzia, eskuz egindako mapak, soldaduen marrazkiak eta izkribuak, Mola jenerala hil zeneko hegazkinaren hondakinak, orotariko aztarnak eta abar luzea tartean ziren Gerra ikaragarriaren lekuko.

Hiru urte horietan Gasteizko Cordoi Etxeko arduradunekin negoziatzen ibili ginen bertan erakusketa egiteko. Kostata, baina azkenean ontzat eman zuten proiektua eta ederki asko bete genuen Cordoi Etxeko zoko guztiak bando bateko eta besteko materialekin; galtzaileen bandokoa ugariagoa zen, ordea.

7.000 lagun inguru hurbildu ziren "**1936-1996**" izena jarri genion erakusketa ikustera. Hura, ordea, hasiera baino ez zen izan; handik beste hainbeste erakusketa burutu baitziren Euskal Herriko hainbat tokitan (Miranda, Biasteri, Samaniego, Oion, Laudio, Bergara, Donostia, Aretxabaleta, Elorrio, Eibar, Agurain, Elgeta...) Guillermo Marina, **Angel Tabernero** –gerora buru-belarri proiektuan sartu zena-, eta ni neu aritu ginen herri horietan guztietan; eta neurri handi batean material horien berri ematea eta zabaltzea lortu genuen. Egindakoa borobiltzeko edo, egindako guztia jasotzen zuen Cda sortu genuen eta kopia ugari banatu genituen.

Elkarteak garai berria

Urte dezente pasa ziren hura egin genuenetik, eta geroztik, ohiko ekitaldiez gain ez zen hurrengo urteetan ekimen berezirik izan elkartean. 75 urte betetzen dituen honetan, berriz, batzordekide berriek beste bultzadatxoa eman nahi diote elkarteari. 2011ko ekainean lau hitzaldi antolatu zituen elkarteak 75. urteurrena ospatzeko eta elkartearen beraren egitura berria eta asmoak agertzeko. Lehenengo hitzaldia **Jesús Gutiérrez** eibartarrak eman zuen "La Guerra en Euskadi y los fondos de la Sociedad de Amigos de Laguardia" izenburupean. Gerraren nondik-norakoak azaldu ostean, elkarteak horren inguruan duen ondarea eta materialen berezitasun eta garrantzia azpimarratu zituen. **Salvador Velilla** izan zen bigarren hizlaria egun horretan. "Biasteri" Laguardia izendatzeko aspaldi erabilitako izena zalantzan jarri zuen bere jardunean hainbat ikerketen ondorioz. Zalantzarik gabe oraindik ere nahiko buruhauste dakartzan gaia da, eta kontu horretan desadostasunak ageri dira behin baino gehiagotan. Bi hitzaldiok Félix María de Samaniegoren etxea izan zen hartan gauzatu ziren. Hurrengo astebururako beste bi hiltzaldi zeuden iragarrita, oraingoan "Garcetas" etxean, egungo turismo bulegoa dagoen tokian burutu zirenak. Horrela, **Emilio Palacios** eltziegotarrak Félix María de Samaniego alegilariaren bizitzaz jardun zuen, "Samaniego en la Cervantes virtual" izeneko hitzaldian. Zikloa amaitzeko **Iñaki Sagredo Garde** irundarra Biasteriko gazteluaren gainean aritu zen. Bere hitzaldian Nafarroako defentsan izan zuen garrantzia eta gazteluaren beraren nolakotasunak aipatu zituen. Bestetik, gaztelua kokaturik zegoen tokian arkeologia mailako indusketa-lanak egitea oso interesgarria izango litzatekeela azpimarratu nahi izan zuen.

Ekainaren 18an, berriz, elkartearen aldizkariaren aurkezpena izan zen museoan, era horretan urteurrenaren inguruko ospakizunak amaituz. Elkarteak urtean zehar egindakoaren berri emateko urtekari moduko bat argitaratzen zuen urtero, baina 1992az geroztik bertan behera utzi zuten ekimena.

Agintari batzuk, zenbait bazkide eta gonbidatuok bildu ginen elkartearen egoitzan. Batzuen eta besteen hitzak aditu ostean, luntxa izan genuen Errioxako ardoa dastatuz. Orduantxe lagun batzuen falta somatu nuen; arestian aipatutako bi lagunena **Angel** eta **Guillermo**rena, eta batez ere Fernando Serranorena, **"El Moro"** goitizenez ezagunagoa zen lagun kuttunarena, aspalditxo utzi gintuena.

Zorionak Biasteriren Adiskideen Elkartea osatzen duzuen guztioi, 75 urte betetzea ez da-eta txantxetako gauza. Ea beste hainbeste betetzen dituzuen ■

Landalan elkartea

Eltziegon bada aspalditxo "landalan" ari den elkartea. Horren gainean gehiago jakin nahian Alain Callejorengana jo genuen eta hauexek esan zizkigun.

Zer da Landalan elkartea?

Eltziegoko hainbat gaztek osatzen dugun elkartea duzu Landalan. 1997ko maiatzaren 14an sortu zen elkartea eta 60 lagunok osatzen dugu.

Zer dela eta bururatu zitzaizuen elkartea osatzea?

Orain dela 14 urte bildu ginen herriko zenbait gazte. Ez genuen helburu zehatzik, baina pentsatu genuen gazteok elkartzeko tokia behar genuela geure kontutxoak egiteko. Bi urteren buruan lokala lortu genuen, baina 2003an Udalak bertatik bota gintuen lokala beste kontu bat egiteko behar zuela esanez. Oraindik ere lokalik gabe gaude.

Zein helburu dituzue?

Gure helburu nagusiena da gure herrian ekitaldiak antolatzea eta giro atsegina sortzea bertakoak parte hartzera bultzatuz. Horrela luzaroan jarraitu nahiko genuke, eta orain haurrak direnek etorkizunean lekukoa hartzea eta gauzak egiten jarraitzea.

Instituzioen babesik al duzue?

Udaletxeak 2.400€ ematen dizkigu urtero. Era berean Arabako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzak ere laguntza ematen digute ekintza jakin batzuk antolatzeko.

Nolako ekintzak eta nori zuzenduak egiten dituzue?

Adin guztietako jendeari zuzenduta dago, baina batez ere gazteei; edo gazte sentitzen direnei, kar, kar.

Eltziegoko jaietan hainbat ekitaldi antolatzen ditugu, hala nola, paellaren eguna, kontzertuak, ardo-dastaketak, jolasak, mus-txapelketak, diskoteka mugikorra, bingoa... Horretaz gain, urtean zehar ere bestelako kontuak burutzen ditugu, adibidez, Eskerrak Emate Festetan urteko ardoaren dastaketa, sasoia denean sagardotegietarako bidaiak antolatzen ditugu, eta Frantziako Tourra denean Tourmalet ingurura jotzen dugu etapa bat ikustera, eta abagunea baliatzen dugu Asturias bisitatzeko. Hau guztia egin ahal izateko Eltziegoko festetan txozna irekitzen dugu diru pixka bat ateratzeko.

Zein izan dira zure ustez ekintza aipagarrienak?

Guretzat seinalatuena "Gazte Eguna" izan zen, 2007an ospatu genuena. Antolaketa handia eta zaila izan zen. Egunean zehar txistulariak, trikitixa, ardo-dastaketak eta abar luzea izan genuen giro ezin hobean. Gauean, berriz, Gatibu eta Su ta Gar taldeek jo behar zuten, baina orduantxe izugarrizko ekaitza izan zen eta bertan behera utzi behar izan genuen. Eguraldiak erabat zapuztu zigun egindako ahalegina, horregatik, berriro antolatzeko asmoa daukagu ea hurrengoan ongi ateratzen zaigun.

Gogoan dudan beste bat izan zen Greciako Nemea herriarekin izan genuen hartu-emana.

Euskarari ere tartetxoa egiten al diozue antolatutakoen artean?

Egia esan, gutxi, baina gure asmoa da euskara sartzen hastea elkartean eta herriko jaietara ere zabaltzea. Buruan ditugu ekitaldi batzuk: hitzaldia, antzerkia, pailazoak, edo-eta musika talde euskalduna ekartzea.■

LANTZIEGO IKASTOLAKOAK DINOSAUROAK IKUSTERA

Talde osoa diplodocussen aurrean.

Abenduaren 16an Lantziego ikastolako 1. zikloko ikasleak Enciso herrira joan ginen dinosauroak ikustera.

Lendabizi, museora joan ginen, eta han, oso azalpen interesgarriak entzun genituen. Gero, mendi batera joan ginen dinosauroak ikustera. Oso handiak ziren! Eta asko gustatu zitzaizkigun!

Azkenean, herriko parke batera joan ginen, eta han, bazkaldu eta jolastu ginen. OSO ONDO PASA GENUEN! ■

Argi Oilar elkarteari galderak

NOIZ SORTU ZINETEN ETA ZEIN HELBURUREKIN?

Duela 7 urte gutxi gora behera martxan jarri ginen. Gure helburua hasieratik izan da euskara zein euskal kultura eguneroko bizitzan zabaltzea, erabilera eskolaren arlora soilik mugatzen zela ikusten genuen eta hortik kanpo ere zabaldu nahi dugu.

ZER EKINTZA PLANTEATZEN DITUZUE ETA NORENTZAT?

Planteatzen ditugun ekintzak ume zein gazteei bideratuta daude gehienbat, adibidez haurrentzako jolasak, tailerrak, pelikulak edo antzerkiak antolatu ohi ditugu. Gazteentzat berriz, urtero bertso afari bat antolatzen dugu, hitzaldiak…

ZER MODUZ IKUSTEN DUZUE EUSKARAREN EGOERA ZUEN HERRIAN?

Arabar Errioxako herri gehienetan bezala, ezagutza haziz doa, baina honek ez du esan nahi erabilerak joera berdina jarraitzen duenik. Hala ere, zenbait une edo egoeratan, euskara entzuten da Lantziegoko kaleetan. Horrek jendea saiatzen dela edo kontzientzia bat duela adierazten du.

ZEIN DIRA ZUEN USTEZ ETORKIZUNERAKO ERRONKAK ETA BEHARRAK?

Lanean jarraitu behar da euskara geroz eta arlo gehiagotara zabaltzeko, bai kulturara, kalera, zein administraziora adibidez; arlo bakarrean soilik lan eginez gero zaila da euskararen normalkuntza.

BEHAR BEREZIRIK IKUSTEN AL DUZUE?

Gure herrian adibidez seinaleak edo kartelak ez daude euskaratuta eta egoera hori aldatzen saiatu gara.■

OIONGO BERTSO ESKOLA KOLOKAN HIRU URTE EGIN ONDOREN

Berriro ere Arabako Bertsolari Txapelketako kanporaketa bat izan genuen Oionen. Duela bi urte ere zorte bera izan genuen herrian. Aurten "Azkenak" elkartearen txokoan Bertso Eskolakoek eta lagunek prestatutako afariaz eta ostean ospatu zen bertso kanporaketaz 60 lagunek gozatu genuen, hau da, gehiagok ezin, lokalak ez baitu gehiagorako ematen. Urduritasunak urduritasun saio polita osatu zuten bertsolariek. Asier Otamendi izan zen irabazle, Oiongo azken aurreko Araba Euskarazen koordinatzaile aritutakoa. Ez zen ezagun bakarra bertso-saioan, Mikel, Ikastolan irakasle urteetan irakasle aritu dena epaile lanetan izan baikenuen.

Oionen bertso txapelketako kanporaketa bat errepikatu izana ez da kasualitatea. Udalaren diru-laguntza kontuan izatekoa da, baina, batez ere, Arabako Errioxako Bertso Eskola, Oionen kokatua dagoena da sari horren erantzule nagusia. Oiongo Bertso Eskola ez balego, ziurrenez, horrelako kanporaketarik ere ez litzateke ospatuko bertan.

Hiru urte bete ditu Oiongo Bertso Eskolak. Hasieran hamabostean behin biltzen baziren ere eskoletarako, laster astero biltzera pasa ziren. Asteartero, Oiongo euskaltegian, zazpietatik zortzi eta erdietara izaten dira klaseak urritik ekainera. Gasteiztik etortzen da irakaslea, eta, egia esan, ikasle gutxi ibili da urtero baina ibilitakoen balorazioa oso positiboa da. Bat-bateko bertsoak, idatziak... lan mota asko egin dute eskolan, iaz Arabako Koadrillen Arteko Bertso Txapelketan parte zuten Oiongo bertsolari hasi berriek. Baina ez dira txapelketa eta bertsolaritza jorratzen dituzten bakarrak, eskoletan euskararekin jolastuz jolas egiten dute, oso ondo pasatzen dute.

Orain inoiz baino jende gutxiago geratu da datorren ikasturterako, Bertso Eskola kolokan jartzerainoko beheraldia izango du; izan ere, bertan ibili diren batzuk kanpora doaz ikastera eta jende berria sartzen ez bada, Oiongo Bertso Eskolak ateak itxi beharko ditu.

Kantera lana aurrera doa Arabako Errioxan. Aurten Lapuebla eta Oiongo ikastoletako eta Lantziegoko ikastetxeko 95 haurrek hartu dute parte "Gu ere bertsolari" programan. Hala nahi duten ikastetxeekin gauzatzen du egitasmo hori Arabako Bertsozale Elkarteak. Arabako Errioxan lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailakoak ibili dira eta entzun eta ikusi ahal izan ditugu beren lanak Berberanan eta Arabako Errioxa Irratian. Hortaz, bada, aurrera begira Arabako Errioxako Bertso Eskolak nahiko lehengai izango duela aurreikus liteke, baina, badakigu, historiak hala erakutsita, orainik gabeko geroak huts egiten duela sarritan. Pena litzateke irakaslea prest izanda, Oiongo Bertso eskola bertan behera gelditzea. Anima zaitezte, eta ez dezagun euskararen erabileran hainbesteko laguntza eman diezagukeen baliabide hau alferrik galtzen utzi. ■

Baratza ekologikoa

2010eko Abenduan gauzatzen hasitako proiektua dugu San Bizente ikastolako Baratza Ekologikoa eta oraindik ere, nahiz eta oporretan egon, martxan jarraitzen duena Ikastolako partaide guztiei esker.

Hasiera batean irakasle baten ekimena izan zen, eta gero, egitasmoa gauzatzeko baliabideak bilatu ondoren, klaustroan eta juntan aurkeztu zuen. Oniritzia emanda DBH 4. mailako ikasleak hasi ziren 2010eko abenduan baratzea martxan jartzeko behar zirenak lortzen eta prestatzen: banbu kanaberak, kupelak, plastikoak, lurra, ... Bitartean hainbat guraso eta irakasle oinarrizko formakuntza jasotzera joan ziren Bizkaira eta DBHko ikasleek sortu zuten Baratzeko Blogarekin jarraitu zuten. (www.ikastolakobaratza.blogspot.com) Honetan baratzak izan dituen pausuak, gorabeherak eta abar dituzue.

Ondoren auzolana proposatu zen ikasle, irakasle eta gurasoen artean. Lan polita egin zen egun horretan: kupelak bere tokian jarri, lurra hartu eta jarri, erositako lurrarekin nahastu... eta Guraso Elkartekoek hamaiketakoa prestatu zuten parte hartu zuten guztiontzat.

Jarraian konposta egiteko beharrezkoak abian jarri ziren. Ikasle eta irakasle batzuek honen ardura hartu zuten eta ikastolako bi eraikinetan ikasleek zein irakasleek sortzen duten ongarri organikoa jasotzeko ontziak jarri ziren. Hauetan biltzen dena konposterora eramaten da eta bertan harrek euren lana egiten dute. Antzeko gauza gertatu da ureztatzeko txandekin. Udarako ureztatzeko sistema jarri arte, Ikastolako gela batzuk zenbait egunetan baratzea ureztatu behar izaten zuten. Egun hauetan, batzuetan, ikastolako ikasle txikitxoen laguntza jaso zuten eta ez bakarrik ureztatzeko, baita landatzeko ere. Konposterotik lortzen den urarekin landareak ureztatzen dira eta azkenean ateratzen den lurra ongarritzat erabiltzen da landareak dauden kupeletan jarriz.

Landaketa garai ezberdinak egon dira. Hasieran erosi ziren plantoien landaketa izan zen. Hau adin ezberdinetako ikasleek egin zuten. Hazi batzuk ere erein ziren eta azkenik euskaraz hitz egiteko kanpaina batean gela bakoitzak lortutako landareak landatu ziren. Aldi berean, HHko ikasleek hazitegi batzuk izan dituzte eta bertan haziak erein, ureztatu eta izan duten garatze-prozesua ikusi eta disfrutatu ahal izan dute.

Aste Santuko oporrak zetozela DBHko ikasle batzuek negutegia prestatu zuten baratzerako, baina, zoritxarrez, asteburuan apurtu egin zuten eta berriro lan guztia egiteko denborarik ez zegoenez, banakako negutegi batzuk prestatu ziren.

Hau ez da izan Baratzeak izan duen “istripu” bakarra. Auzolana egin zen asteburuan ere bi kupel lapurtu ziren, baratzea jarri aurretik hesiko ateko giltzarrapoa eta manila apurtu zituzten... Baina Ikastolak badaki zelako lan polita eta baliagarria egiten ari den eta ekinaren ekinaz doanez aurrera, hor dugu gure Baratzea egunak pasa ahala ederrago. Eta hauxe bera ikusteko ekainean Ikastolak antolatutako Merkatu Ekologikoaren egitarauan, DBHko ikasle batzuek euren irakaslearen laguntzarekin, nahi izan zuten guztiei baratzean egindako lana aurkeztu zieten eta bisita gidatua egin zuten.

Baratzeak izan dituen azkenengo pausuetakoa da ureztatzeko sistema ezartzea. Horrekin oporretara lasaiago joateko aukera genuen.

Esatekoa da San Bizente Ikastolako Baratzeko proiektu hau guztion laguntzari esker gauzatu eta aurrera eramaten dela: ikasle, irakasle, langile eta guraso, zein gurasoei esker. Denontzako lekua dago eta denok zaudete gonbidatuta gure baratzea ikustera, blogean iruzkinak jartzera, ideiak eta proposamenak ematera. Ez ahaztu baratzeko blogean jarraitu dezakezuela proiektu honek ematen dituen pausuak. ■



XXIV. artisautza azoka

Vianan, apirilaren 17an, Erentzun Fundazioak XXIV. artisautza azoka ospatu zuen; azken urteetan bezala aurreko egunetan, hau da, ostiral eta larunbatean ere hainbat ekitaldi egon ziren asteburua girotzeko.

Asteburuan zehar, kultur etxean “Torneaketa Iparraldean” erakusketa egon zen. Larunbatean, askaria, haurrentzako txontxongiloak, eta hitzaldia izan genituen eta igandean, azokaren inaugurazio ekitaldia, “Erentzungo eskortak “ sariaren banaketa, dantzak eta artisauen postuak ikusi ahal izan genituen.

Aurten, 65 postu inguru egon ziren, jende asko bildu zen hauek ikusteko eta denetarik ikusi ahal izan genituen: elikagaiak, jostailuak, egur tailuak, harriz egindakoak,….

“Erentzungo eskorta” saria Oiongo San Bizente ikastolak eta Lapueblako Assa ikastolak jaso zuten; ikastola hauetara joaten dira Vianako ikastolan ikasketak bukatzen dituzten ikasleak. ■

Ttiki-ttaka alkateei galdezka

Bi urte betetzear ditu euskara teknikariak Arabako Errioxan eta euskararen munduan gabiltzanok, aldez aurretik esaten genuen bezala, oso garbi ikusi dugu behar-beharrezkoa dela euskararen inguruan egiten den guztia koordinatzeko ardura duen norbait. Arabako Errioxako Euskararen Aholku Batzordea osatua dago, zenbait komisio ere lanean hasi dira, 350 pertsona inguruk egindako guztiaren berri jasotzen dute e-postaz, “euskara maite dut” pegatina denok ezagutuko duzue... Dena dela, bertako administrazioarekin edo zenbait udalekin hainbat zalantza dugu; izan ere, euskara teknikariaren gastuaren %80 Arabako Foru Aldundiak hartzen du bere gain, %10 Eusko Jaurlaritzak eta gainerako %10 da Arabako Errioxako udal guztien artean, eta hala ere, beren partea ordaintzeari ezetz esan diote zenbait udalek. Hori ikusita, gure herrietako instituzioetan euskara nola ikusten duten, nola bizi duten jakin nahian, galdetegi bat prestatu eta maiatzeko hauteskunde aurreko alkateengana jo genuen. Lauk bakarrik erantzun dute; esanguratsua, ezta?

1- Nola baloratzen duzu euskararen egoera: zure herrian, eskualdean?

Samaniego: *Aurrera doa, poliki baina aurrera*.

Leza: *Oso balorazio ona egiten dut ezagutzari dagokionez, edozein ekitaldi antolatu eta garatu daiteke euskaraz. Ez dago, ordea, ez erabilera nahikorik eta ez euskal tradiziorik.*

Bilar: *Ona baina hobetzeko ere badago, batez ere, kalean hitz egiteko orduan.*

Biasteri: *Balorazioa oso positiboa da; hala ere, esan beharra dago, kostatu egiten zaigula aurrera egitea bai nire herrian eta bai zonaldean.*

2- Gabeziaren bat ikusita zer somatzen duzu faltan?

Samaniego: *Ikasketak euskaraz egin dituzten belaunaldiak ikusten ditut, euskaraz ondo dakitenak, baina egunerokoan ez dute euskararik erabiltzen. Urte gehiagoko beste belaunaldi bat ere ikusten dut, hauek bere garaian euskararen alde mugitu eta zertxobait ikasi ere egin zuten; orain, ez dute erabiltzen baina euskararen aldeko ekitaldi guztietara joaten dira seme-alabekin*.

Leza: *Ingurune euskalduna falta da, mende askotan ez dugu ez entzun eta ez hitz egin, ohitura hori falta da. Ez da oso arrunta inguruotan euskara ama hizkuntza izatea. Ikastolak eta euskara sustatzen duten elkarteak egon arren, eta, beraz, nahiko maila egon edozein egoeratan hitz egiteko, ez dago euskaraz egiteko ohiturarik, eta ez dakit zergatik…desabantaila hori gainditzea ez da erraza, dena den, egindako lanak izango du saria.*

Bilar: *Euskara dakitenek euskaraz normal komunikatu behar dute.*

Biasteri: *Euskaraz dakiten belaunaldiek gutxi egiten dute eukara kalera ateratzeko, gehiago inplikatu behar lukete gainerako herritarrei ez egiteko arrotza; horrela, udalek errazago genuke euskararen arautegia betetzea.*

3- Badaukazu Arabako Errioxako Euskararen Normalizazio Planaren berririk? Zer iruditzen zaizu?

Samaniego: *Bai. Paperean oso ondo idatzita dago baina denon eginkizuna da egitasmo hori garatu eta gauzatzea, ideiak eman… ez dadila apalategian geratu, beste batzuetan gertatu den bezala*

Leza: *Ez dut ondo ezagutzen, baina ziur nago primerakoa izango dela eta pixkanaka-pixkanaka aurrera joango da.*

Bilar: *Ona.*

Biasteri: *Bai, ezagutzen dut. Arabako Errioxako Koadrillako Kultura Komisioko partaide nintzen egitasmoa prestatu zenean. Ondo iruditzen zait, beti ere, jarritako helburuak betetzen badira, planak ez dira apalategietarako.*

4- Badakizu euskara teknikaria dugula eskualdean? Beharrezkoa ikusten duzu figura hau eta bere lana?

Samaniego: *Sartu zenetik ezagutzen dut Leire. Plan egoki bat sortu eta gauzatzeko orduan koordina gaitezen ikasketa eta ezagutza egokiak ditu. Euskara tenikaririk gabe ezinezkoa izango litzaiguke ematen ari garen pausuak ematea*.

Leza: *Bai, ezaguzten dut. Ez dakit, orain arte pertsona hori gabe egin dugu lan, baina ez dakit esaten beharrezkoa den ala ez.*

Bilar: *Bai.*

Biasteri: *Ezagutzen dut eta euskara teknikaria behar-beharrezkotzat jotzen dut, batez ere, zonalde honetan, aurrera egitea hainbeste kostatzen ari zaigun inguruan. Udalentzat laguntza handia da, euskara sustatzeko ekintzetarako laguntzak bideratzeko orduan, ekintza bideak zehazteko orduan…*

5- Zure ardurapean dagoen udalak zer egiten du euskararen normalizazioaren alde?

Samaniego: *Udaletxeak gure inguruan euskara normalizatzeko asmoarekin datorren guztia laguntzen du. Herriko Ikastola eta haurreskolaren ekintzak laguntzen ditugu. Festetan ipuin kontalari euskaldunak kontratatzen ditugu, antzerkiak, begirale euskaldunak, tallerrak ere egin ohi ditugu, esaterako, "Sentitu Euskaraz" psikomotrizitate-tallerra antolatu genuen. Ahal dugun guztia elebitan argitaratzen dugu eta udaletxean dagoen administrari laguntzaileak euskaraz atenditzen du hala nahi duena.*

Leza: *Ume eta gazteentzako antolatzen diren ekitaldi guztiak euskaraz dira.*

Bilar: *Herriko jendearekin eginiko bileretan ezarritako ildoak eta Koadrillako euskara teknikariak emandako orientabideak jarraitzen ditugu.*

Biasteri: *Zerotik abiatu beharra izan dugu. Lehenbiziko ekintzak paisaia linguistikoa euskaratzea, euskarazko ekintzak antolatzea eta zentruei laguntzea izan dira.*

6- Euskara gaitasunak betetzen dituzte zure udaleko langileek?

Samaniego: *Administrari laguntzaileak 1. hizkuntz eskakizuna egiaztatua du eta bigarrena ateratzen ari da*.

Leza: *Bai.*

Bilar: *Bai.*

Biasteri: *Bai, Hizkuntza eskakizunak dituen jendea badugu.*

7- Badago udalean jendearen aurrean lanean euskaraz jendea hartzeko gai denik?

Samaniego: *Bai udaletxean eta bai liburutegian euskaraz atendi dezakete, nahiz eta 2. Hizkuntza eskakizuna egiaztatua ez izan. Artxibozaina eta bertako agenda daramana euskaldun zaharrak dira*.

Leza: *Bai.*

Bilar: *Bai.*

Biasteri: *Bai, bi pertsona ditugu udaletxeko bulegoetan eta beste bat turismo bulegoan.*

8- Zenbateko aurrekontua du zure udalak? Zenbat diru gastatzen du euskararen normalizazioan? Zertan?

Samaniego: *Momentuan Arabako Errioxako Koadrillaren bidez euskara teknikaria kontratatua dago; horrez gain, umeentzako ekintzak euskaraz egin ohi dira*.

Leza: *2000 euro*

Bilar: *Ez dugu aurrekontu jakinik, zehatzik. Udaletxe txikia gara.*

Biasteri: *Udalatxearen aurrekontua ez da garrantzitsuena, euskararen alde lan egiteko gogoa izatea, baizik, eta, pixkanaka-pixkanaka laguntzak gehituz joan udaletxetik antolatutako ekintzetarako. Egun bizi dugun ekonomi-egoerak ez du batere laguntzen. Espero dezagun egoerak hobera egitea eta euskara normalizatzeko ekintza gehiago antolatu ahal izatea.*

9- Datorren legealdian zuk jarraituz gero, euskararen arloari begira berritasunik sartzeko asmorik? Zer?

Samaniego: *Udaletxean jarraitzen dutenek euskararekiko gure gizartean dagoen kezka jaso eta egungo konpromiso-maila mantentzea espero dut*.

Leza: *Ahal duguna egiten dugu daukagun aurrekontuaren barruan, kontuan izan udal txikia garela.*

Bilar: *Euskara sustatzen jarraituko dugu gaur egungo ildotik beretik; parte hartzea bultzatuko dugu ekintza berriak jasotzeko eta abar.*

Biasteri: *Lanerako konpromisoa eta euskararen aldeko lana, gure hizkuntzaren ezagutzak kulturalki asko aberasten gaitu eta horretaz baliatu behar dugu.* ■

Euskal Kultur Asteburua Biasterin

Lantziegotik etorri zen lekukoa Biasterik hartu zuen oraingoan Euskal Kultur Asteburua ospatzeko asmotan. Aurreneko aldiz hiru egunez ospatu genuen EKA, ekainaren 2an hasita ekainaren 5era bitartean.

Ostegun goizean 750 bat haur etorri ziren inguruko hainbat herritatik egokitu zitzaizkien ekitaldi zein jolasak burutzeko asmotan. Bai ustegabea Biasterikoek hartu zutena horrenbeste ume ikustean “Txirrin“ abestia kantatuz! Handik eta hemendik, korrika eta geldi, taldetxo bakoitzak ederki asko zekien nora jo primeran antolatutako guneen artean.

Altxorraren bila jolasa, herri-kirolak, zirkoa, taillerrak eta abar luzea izan zuten arratsalde partera arte; eta dena primeran atera zedin irakasleak euren “artaldetxoen“ zaintzaz arduratu ziren giro ezin hobean.

Zalantzarik gabe haurrek ematen diete bestelako kolorea halako ospakizunei, eta bertakoek, zur eta lur hasieran, gustura eta pozik hartu zuten euren herria gizaki txikiek inbaditzea. Seguraski ez dute Biasteritarrek horren ume andana sekula ikusi, ez horixe.

Eguraldiaren beldur ginen goiz partean fresko samar egin baitzuen, baina orduak pasa ahala giroa epeltzen joan zen eta primeran amaitu zen EKAren lehenbiziko eguna.

Ostiralean, berriz, gazteentzako eguna izan zen eta horientzat ere ekitaldiak izan ziren. Udaletxeko arkupetan herri-afaria izan zen eta haren ondotik rock kontzertuak *Aldats* aretoan, (lehengo *Bay-Bay* edo-eta *A&K*).

Hiru taldek ederki alaitu zuten gaua: *Smoking Hil* taldea Vianatik etorritakoa, 2009an Mikel Gurrutxagak sortua Andoni Bonafau eta Juan Valdelanarekin batera. *Degenerados* hainbat herritako gaztek osatua: Ibai, Ibai (2 dira-eta), Julen, Javi, Andoni eta Suan. Eta azkenik *La loka es tuya* taldea, Txiki Nalda gitarristak, Gabriel “Tano” bateria-jotzaileak eta Claudio Javier Manzanos Iñiguez baxu-jotzaileak osatua. Hiru taldeak primeran aritu ziren eta hainbat kanta eder eskaini zizkiguten.

Ezohiko gertakari bakarra *Degenerados* taldekoak jotzen ari zirenean jazo zen. Euren saioa amaitzear zeudela argia joan egin zen erabat Aldats aretotik. Bertako arazoa zela pentsatu genuen hasieran, baina kalera irtendakoan orokorra zela ohartu ginen. Ez zen Biasterin bakarrik izan, Errioxa osoa geratu zen ilunpean 20 minutu luzez iraun zuen itzalaldiarengatik. Matxura konponduta gainontzeko taldeek ekin zieten lanari, eta giro paregabean goizeko laurak etorri zitzaizkigun.

Igandean EKAren azken eguna ospatu genuen. Inguruko herrietatik etorritako euskaltzaleok Biasteriko San Joan plaza ttipian bildu ginen 12:00ak inguruan. Ordurako gune guztiak antolatuta zeuden: eszenatokia, taillerrak, txozna, Ttiki-ttaka kamiseten saltokia, ardo-dastaketarakoa... Astiro-astiro jendea agertzen hasi zen eta berehala ehun bat elkartuko ginen ordubaterako. Orduantxe izan genuen Lapueblatik etorritako neskato batzuen dantzaldi bikaina eta segituan Biasteriko haurren dantza taldearen txanda izan zen, bertaratutakoen txaloen artean.

Tartean tripa-zorria hasi zitzaion jendeari, txorizo egosiaren usainak erakarrita edo, eta asko izan ziren goseak akabatuta txoznara hurbildu zirenak. Errioxako urteko ardoak lagun, berehalako batean agortu zitzaigun okasiorako prestatu genuen txorizo gozoa.

14:30ak aldera ardo-dastaketa izan zen Samaniego alegilari handia izan zenaren jauregian. 20 lagun inguru hurbildu ziren *Viña Lamioga* upeltegiko María Jiménez Arrausiren azalpenak adi-adi entzutera. Bitarte horretan plazara hurbildu ziren haurrak eurentzako prestaturiko taillerretan ari ziren buru-belarri. Goiz parte ederra, benetan.

Plaza garbi-garbi utzi ostean, herri-bazkaria izan genuen Samaniegoren etxean bertan. Bazkarira 23 lagun baino ez ginen animatu, baina giro ederrean izan ginen. Kafe orduan, arratsaldea animatu behar zuen gure Fidel kezkatuta agertu zen, ordurako euria hasi baitzuen. Horrek, ordea, ez zuen gure Fidel kikildu, ez horixe! Bere traste guztiak hartu eta etxearen atarian jarri zituen. Kafea amaitzen ari ginela "*Hemen gaude ta poztutzen naiz ta ziur zure aita ere bai...*" abestiaren lehen notak bota zituen Fidelek. Ordu erdiren buruan atertu zuen eta hantxe jarri ginen dantzan Fidelen errepertorioa lagun.

Asko izan zarete modu batera edo bestera EKA aurrera ateratzen lagundu diguzuenok. Bere garaian gure esker ona adierazi genizuen, eta oraingoan ere lerro hauetatik egin nahi dugu. Mila esker guztioi. ■

Arabar Errioxako euskara

Ohar batzuk

Eduardo Aznar Martínez

Harrigarri samarra da noizbehinka Arabako egoera linguistiko zaharrari buruz agertzen diren teoriak irakurtzea. Azken urteotan bereziki, maila askotan «zeltomania»-bolada eskerga hedatu da, gure iraganaldiaren ikuskera indar handiz inarrosten. Bide honi jarraikiz, ikuspegiren batzuetarik erromatarrak iritsi aurrean Arabar Errioxa beste lurralde zeltiko bat izango zen, eta ondoren eskualde osoa erromatarturik geratuko zatekeen, euskara Erdi Aroan helduz, birpopulatzaile banaka batzuek ekarria, baina aurki desagertua…

Eskema hau suhartasun handiz proposatzen den arren, datu historikoen aztertze sistematikoak ez dizkigu horrelako konklusioak eskaintzen. Aitzitik, euskal hizkuntzak oinarri zaharragoak bide ditu eskualdean, eta ziurrenez Antzinarotik egon da hemen bizirik eta ongi finkaturik. Errealitate hau ezagutzeko, bertako toponimiak aztarna eta datu ugari ematen dizkigu, batez ere beste informazio-iturriekin osatzen badugu.

Jakina, alor honetan zenbait zehaztasun egin behar dira: lehenik, argi dago Arabar Errioxako toponimoren batzuek jatorri zeltikoa dutena, eta gainera hurreko Viana aldean idazkun zeltikoak agertu dira. Esate baterako, Lantziego, Samaniego eta Eltziego bezalako toki-izenak ez dira euskal sorrerakoak, -eco atzizki kantauriar-zeltiko zaharra daramatela. Hauen artean, argiena Samaniego da, zeren *Samaneco batetik etor liteke, bere erroan Castro-Urdiales aldeko *Sámano* izen etnikoa dagoela, eta gutxi gorabehera “samanotarren

herria” (hau da, “samanotar pertsonek eraikitako herrixka”) adieraziz.

Baina era berean, euskal toponimia hagitz ugaria da mendebaldeko udalerrietan, bere puntu garrantzitsuena Bastidan daukana, alboko aldeetan ere maila bertsuan hedatzen dena, alegia San Vicente de La Sonsierra, Haro eta Gimileoko txoko anitzetan. Gaurko muga politiko artifizialek ez dute errealitate honetan inolako eraginik, eta bai Arabar Errioxan bai Errioxar Erkidegoan euskal aztarnak oso antzekoak dira. Hala ere, ekialdean egoera nahiko bestelakoa da, zeren alde honetako udalerrietan euskal toponimia urriagoa da, puntu askotan erabat desagertuta dagoena.

Bi Arabak, hizkuntzei begira

Kolorez markaturiko aldean euskal toponimia erabat nagusi da, eta datu honek euskarak duela gutxi arte bizirik iraun zuela adierazten du. Zuriz geratu den aldean, euskal toki-izenak agertu ere egiten diren arren, erdal toponimia askoz ugariagoa da, beraz eskualde hauetan latinizazio goiztiarra produzitu zen, euskal hizkuntzaren erabilera aro zaharrago batean galtzen zelarik.

Mapa honetatik zenbait ondorio atera daitezke. Adibidez, sartaldean erdaldun “ziri” handi bat nabari da. Aitzitik, hegoaldean beste ziri bat ikusten da, oraingoan euskalduna, errioxar lurretarantz hedatuz. Fenomeno hauen azalpena erraz samarra da: puntu baxuenetan (gehienak zuriz dauden guneetan) erromatartzea erosoago sartu zen, alde menditsuetan (menperagaitzenak) toponimiak hobeto dirauena, hemen latinizazioa mugatuagoa izan zelako.

Nola ulertu ahal ditugu datu konplexu hauek? Hasteko, eskema bat ezarri behar dugu geure buruetan lurralde honen historia zuzenik konprenitzeko. Sarritan aurkakoa pentsatzen badugu ere, giza historiak aldaketa anitz jasan ditu, eta indoeuropar inbasioak astintze nabaria izan ziren Europan.

Milaka urtetan zehar, Kontinente zaharra herri paleolitikoez populaturik egon zen, ziurrenez gure arbaso zuzenak baitziren. Hain zuzen ere, beraien gorputzak europar gizon modernoenak ziren, eta badirudi genetikoki hemengo populazioak beraiengandik datozena. Baina duela hiru mila urtetarik inguru, europar mendebaldeko bazterrean talde zeltiko batzuk agertu bide ziren, beraiekin familia honen hizkuntzak zekartzatenak, eta Penintsulan barrena ere hedatzen zirenak. Hemendik letozke lehenago aipatu ditugun idazkun eta toponimo zeltikoak.

Erromatarrak geroxeago heldu ziren, eta berauek euren zibilizazio-proiektua inposatu zuten, hizkuntza latindarra alde guztietan mintzaraziz. Denbora aurrera zihoan neurrian hizkera hau aldatu egin zen, gaurko erromantzeak agertuz (espainiera, frantsesa, galiziera, eta abar).

Arabar Errioxako euskal toponimo zenbait

Eltziego	Bilar	Guardia	Lantziego	Leza	Olon	Ekora
Espuru (haitz-buru)	Biurco (bihurgune bat egiten den tokia)	Murriarte (muru artean)	Asa (a(t)sa = lohia, lohi dagoen tokia)	Escorza (Haizkorritza < Haitz-gorritza = haitz gorriak edo larrutuak)	Alzelaia	Esquide (Ezkidi = ezkiak dauden tokia, gaztelaniaz "chopera, alameda")
	Bizcarcos (bizkar edo muino txikia)	Ordate	Oyanco (oihan txikia)	Leza	Bizcarre	
		Zabala			Hondalan	
					Larra	
Bastida						
Achalde (haitz-aldea)	Arbina (estua den pasa-lekua)	Bortuza (bortuak, mendateak)	Iscorta (haitz-korta)	Larrazuri	Lejoste (elizaren atzean)	Mendiate
Mendigurina (mendi gurena edo garaia)	Mentoste (mendi atzean)	Ortondo (ortuaren ondoan)	Saigoba (saien edo putreen koba)	Solagüen (soroaren gainean)	Uzmendi (auzo-mendi)	Zabala

Euskal hizkuntza guztiz bertakoa denez gero, noiz arte iraunen luke eskualde honetan? Zaila da galdera honi erantzutea, baina gauza batzuk esan ditzakegu. Lehenik, Arabar Errioxa bi zatitan erdibitu behar dugu: ekialdea eta erdialdea zalantzarik gabe hizkuntzaren erabilera nagusia garai zahar batean galdu zuten, agian, Erdi Aroko lehen mendeetan. Hala ere, sartaldean euskara hagitz hedaturik egon bide zen baita XVI. menderaino ere. Hurrengo aldietan ziurrenez euskaldun talde bakan batzuk aurkituko lirateke errioxar guneetan, baina ez litzateke sozialki elementu garrantzitsuena.

Amaitzeko, nabarmendu behar dugu ezen bertako euskalkia mendebaldekoa zela, gaur egun Bizkaian eta Deba Ibarrean mintzo denaren oso antzekoa. Noski, berezitasun batzuk zituen, lotura nabarienak Ebroz haraindiko Errioxan erabiltzen zen euskararekin zeuzkanak. ■

Bibliografia

Luis Mª Mujika Urdangarin (2008): *Arabako Euskal Toponimia. XII. Alea. Errioxa, Hegoaldea*. Hiria Liburuak

Estibalitz Breñas / Jabi Otsoa de Alda (2002): *Arabako Euskal Hotsak*. GEU aldizkaria

PELLO AIZPURU LESAKA

Jaioteguna: **1962ko aprilaren 6a**

Herria: **Urrestilla (Azpeitia?)**

Ikasketak: **Euskal Herriko landareak/ Munduko zenbait herri zapalduren historia/ Kapitalismoa nola suntsitu/ nola izan zoriontsu…**

Lanerako ikasketak: **Magisteritza**

Lanbidea: **Haur eskola batean irakasle**

Non bizi: **Azpeitian**

1- Zenbat urte egin dituzu Arabako Errioxan? Zertan?

Zortzi. Ika euskaltegian, helduak euskalduntzen.

2- Zertan ari zara orain? Non?

Errenderiko haurreskolan hezitzaile lanetan.

3- Urtebeteko konpromisoa hartuta etorri zinen Arabako Errioxara baina zortzi urte eman zenituen bertan. Zer izan zen gehien bete zintuena?

Jendearen freskotasuna euskara ikasteko orduan, hau da, esan genezake euskararekiko eta herriarekiko atxikimendu emozionala zegoela garai hartan .

4- Eta gehien erre zintuena?

Euskara ikasten hainbat urte ibili ondoren, urte batzuetara, ilkasle horiek kalean topatu eta euskaraz egiteko gaitasun ezak.

5- Arabako Errioxara etorri zinenean zer lortzea espero zenuen? Zer lortu da? Eta zerk huts egin du?

Ni, helduen euskalduntzean hainbat urte ibili ondoren iritsi nintzen Arabar Errioxara, eta garbi genuen mundu horretakoak, helburua, Euskal Herriko helduen euskalduntzea eta alfabetatzea zela, beraz, urte luzeetako lana. Kontua da, zeure aportazio txikia egin nahi duzula eta bide luze horretan ahalegina egin nahi duten ikasleren batzuk euskaraz bizitzea lortzen baduzu zure lana eskertua izaten dela. Huts egitea berriz, bidean geratzen diren guzti horien porrota da.

6- Arabako Errioxan aurrerapausurik sumatu zenuen hemen egondako garaian? Zertan? Zertan ez?

Goian aipaturiko helburua kontuan hartzen badugu, aurrerapausoa, norbanakoak egiten duen ahalegina eta esfortzua euskarara hurbiltzeko, ikasteko, eta azkenik, euskaraz bizitzeko bada, ikaragarria. Beste kontu bat da gizartea erabat erdalduna denean, talde lan handia egin beharra dagoela, eta hor, hanka motz geratu garen sentsazioa daukat.

7- Ttiki-ttakako partaide ere izan zinen urte horietan. Zein alderdi ahul ikusi zenion elkarteari? Eta zein alderdi sendo?

Ttiki-Ttaka *euskaldunon elkartea da, beraz, horretan lanean ari ginenon artean oso harreman estua zegoen, euskaltegi eta ikastolen artean hain zuzen, eta bestalde, eremu horietatik kanpo euskaldun dexente badira. Horiek erakartzen ez genuen asmatu.*

8- Zu hemen zeundela hasi ginen esaten Ttiki-ttakan euskarak plan oso bat behar zuela Arabako Errioxan. Orain sekoreak identifikatu ditugu eta lehentasunak zehazten ari gara. Familia transmisioa/ Irakaskuntza/ Helduen euskalduntzea/ Administrazioa/ Kultura/ Aisia/ Kirola/ Komunikabideak/ Teknologia berriak/ Lan-mundua, sektore hauetatik zein lehenetsiko zenituzke edo zein ekintza lehenetsiko zenituzke?

Nire uste apalean, eta Ttiki-Ttaka elkartea piska bat ezagututa, iruditzen zait familia transmisioan, aztertzekoa bada ere, ezer gutxi egin dezakeela. Eta beste guztiak hiru eremu ahulenetan sailkatuko nituzte: administrazioa, aisialdia eta lan-mundua.

Bada garaia administrazioari, ez babesa bakarrik, baizik eta bultzada eta inplikazioa ere eskatzeko.

Lan munduari dagokionez berriz, sindikatuen inprimakiak, esate baterako, gutxienez, elebidunak izan behar zirela aspalditik, iruditzen zait.

Aisiari emango nioke garrantzi berezia. Esaera zaharrak dioen bezala, "gustoko tokian aldaparik ez".

Ez dadila dena lana, derrigorra, egin beharra izan, baizik eta, gustora, dibertitu, gozatu, maitatu eta bizi euskaraz. Eta hori, normalean, zoritxarrez, aisialdian egin izan ohi dugu.

9- Azken aldian, behin eta berriro ari gara entzuten euskara salbatuko bada, dakitenek erabili behar dutela. Ados al zaude? Arabako Errioxan jende gehiagok ikastea lehenetsiko zenuke? Biak?

Dakienak egiteko behar du ez dakienaren konplizitatea, eta ez "hablame en cristiano-ren" erantzuna. Eta hau, kontzientziazio eta prestigioaren beharrarekin oso lotuta ikusten dut.

Bestalde, garbi dago, gehiengo handia erdalduna denean, jende gehiagok ikasi beharko duela euskaraz mintzatu ahal izateko.

10- Zer esango zenuke baieztapen hauen aurrean: "Nik ez dut ikasiko euskara, politizatuta baitago". Politikoena: "Asko egiten dugu euskararen alde, gertatzen dena da batzuek beti gehiago nahi izaten dutela".

Aitzakia ugari ibili izan ohi dira eta oraindik ere ibiltzen dira herri bateko hizkuntza ez laguntzeko edota ez bultzatzeko. Hizkuntza minorizatuen kasuan, ematen du, laguntza humanitarioa egitearekin konformatzen direla botere politikoa eskuratzen duten politikoak. Garbi esan beharra dago, herritarrek bere herriaren hizkuntza dohainik ikasteko eskubidea dutela, eta hori horrela izateko borondatea behar dela. Zoritxarrez, urte gehitxo ditugu, zuk aipatzen duzun "politizazio" aitzakiarekin ezer gutxi egiteko. Bada garaia diskurtsoa aldatzeko eta denona den ondare kulturala –bizia eta ez museokoa- bultzatzeko, gobernuan edozein dagoelarik ere, interes partidistak alde batera utzita.

11- Zer esango zenioke Arabako Errioxan euskaraz ez dakien bati.

Zaharra bada esango nioke "kaixo", "egun on" , "agur" eta "geroarte" esateko ez dagoela Unibertsitatera joan beharrik eta egunero ikasten dela zerbait.

Heldua bada, herrian euskaltegi bat egotea lan askoren fruitua dela eta ez alferrik galtzeko.

Gaztea bada berriz, bere gorputza eta bihotza maitatzeko, beste era batera esanda, bere herria eta bere hizkuntza.

12- Inoiz euskara hutsez bizitzerik izango ote dugu?

Euskararen militante bat gelditzen den bitartean ez dago itxaropena galtzerik. ■

Euskara eta ni

Euskara niretzat hizkuntza bat baino gehiago da.Geure-geurea izateaz gain, niretzat euskara bizitza ulertzeko era bat da, bizitza bizitzeko modu bat.
Baso kolonizatuan erraietatik azaleratzen den berezko zuhaixka hilezkorra.

Ozta-ozta gogora dezaket elkar ezagutu genuen eguna. Nire herrian ia ez zegoen euskaltzalerik, are gutxiago euskaldunik eta eskolan inoiz ez zidaten ezer aipatu ere egin euskararen bizitzaz, nahiz eta gure erkidegoko hizkuntza zaharrena izan edo gure herriaren izena bera ere euskalduna izan. Nik uste dut zentzurik gabeko jazarpen eta baztertze horrek hurbildu niduela euskarara eta horrenbestez hasi nintzen bere egoeraz jabetzen eta ikasteko beharra sentitzen. Ez naiz ongi oroitzen baina hamasei edo hamazazpi urte inguru izango nituen, laurogeigarren hamarkadan alegia, IKAk gidatutako euskara taldean sartu nintzenean. Ordutik aurrera euskararekin nuen harremana handitu eta sakondu baino ez da egin. Ikas-prozesua polita izan zen, eta oraindik bada, baina are ederragoa da herriko askori ulertezina egiten zaien berreskuratzeko saiakera hau, batez ere bihotzez egiten dugula ikusten dutenean. Batzuetan uste izan dut dagoeneko gure bizitzak horretan dautzala.

Esan beharrik ez dago euskara une larriak pairatzen ari zela. Nafarroako orduko gobernuak, frankismoaren jazarpenean sakonduz, hiru zonaldetan zatitu zuen herria eta gure lur puxka hau “zona no vascofona”n kokatuta dagoenez ahaztua izatera derrigortu zuen, ia-ia. Mende asko eman dituzte kultura garbitzen eta hori nabaria da gaur jende askoren ezjakintasunean, kanpotik ekarritako zerbait dela pentsatzen eta etsaitzat hartzen dutelarik.

Asko da euskarari zor diodana. Izan ere, ezberdina sentitzen zarenenan ezberdin ulertzen eta errespetatzen ikasten duzu. Euskarak pertsona bezala osatu eta hobetu nauelakoan nago. Sinbiosis moduko zerbait da, nik bizitza ematen diot euskarari eta berak niri ere bai.

Orain, idazlan hau idazten ari naizela, pausa bat hartu, eta normalean egiten ez badut ere, atzera begira jarri naiz. Ez dut zalantzarik, egindakoa merezi izan du. Ez dakit eman nezakeen guztia eman dudan ala ez, baina kontua ateratzean pozik nago emaitzarekin.

Zaila da gure hizkuntzaren etorkizuna irudikatzea. Nafarroako politikari gehienek ez dute euskararen aldeko egiazko apustua egiten, hitz asko eta ekintza gutxi. Gizartean, oro har, jarrera hobea antzeman daiteke, baina gure zonaldean ez dugu bitartekorik euskaraz ikasteko eta bizitzeko. Hala ere, Mendabiaren kasuan behintzat, aurrera baino ezin dugu egin. Asko daukagu egiteke eta horretarako jendearen konpromisua behar-beharrezkotzat jotzen dugu euskarak hemen geroa izan dezan. ■

Tabernaz taberna

Mikel totela (tartamutua) zen eta desio bat zuen beste guztiaren gainetik: pertsona guztiak bezala tabernetan ibiltzea. Ez zen ausartzen, ordea. Mikel lotsatuta zegoen bere hizkerarekin.

Halako batean, egoera hori aldatu behar zuela erabaki eta edari erraz bat aukeratu ondoren ispiluaren aurrean praktikatzeari ekin zion: *beeeee… mooo…. beeerrrr…… .mouuuu…. ber…. mouuuutttt… bermut, bermut, bermut. Kitto!*

Joan zen tabernara. Zerbitzaria hurbiltzen ari zitzaiola izerdia zerion Mikeli, urduri zegoen, ezin zuen atzera jo… zerbitzariak: *"zer nahi duzu?*" Eta Mikelek:"…*bermut*!!" Ulertu zion, ekarri zion eta edan egin zuen. Lortuta!!!

Goiz, arratsalde eta gau Mikel tabernara joaten zen eta beti: bermut!!



Aspertzen hasi zen Mikel, beste zerbait eskatzen hasi behar zuela pentsatu zuen eta beste edari erraz bat hautatu ondoren, ispiluaren aurrera jo zuen berriro ere: *kaaaaaa…… ffffffffiiiiiii….. kaaa… fffffeeeeeee… ka… feeeeeeeiiiiii… ka.. fe.. kafe… kafe… kafe… lortua*!

Joan zen tabernara, mostradorera hurbildu, zerbitzaria bazetorren bermut botila eskuan…baina Mikelek: *kaafee*!! Zerbitzariak, orduan, harrituta: "*hutsa edo esnearekin*?"

bermut!!!

Bazen neska bat tabernara bera bakarrik sartu eta beti bi zurito eskatzen zituena. Lehenbizi edaten zuen bat eta jarraian bigarrena. Beti berdin, ez zuen eskatzen kaña bat, ez zuen eskatzen zurito bat eta bukatutakoan beste bat… ez, berak beti bi zurito.

Tabernariak teoria pila bat zituen baina garbi ez zekien ezer: "*zergatik eskatzen ote zituen bi zurito, bakarrik egonda?*" Biharamunean galdetu behar ziola erabaki zuen.

"*Begira, lehen beti bi lagun ibiltzen ginen txikiteoan, duela urtbete bidaiatzera joan zen eta ez da oraidik itzuli. Bere ohorez edaten dut zurito bat: bata, nirea eta bestea, lagunarena*."

Halako batean, gure neska honek zurito bakarra eskatu zuen. Hurrengo egunean, berdin, eta hurrengoan eta hurrengoan…

Tabernariak bere artean esaten zuen: "*ziur bidaian zebilen laguna hil egin dela*". Jakin nahi zuen zergatia baina ez zen ausartzen galdetzen. Hala ere, jakin-mina lotsari gailendu zitzaion egun batean galdetu zion eta…

"Medikuak alkohola debekatu dit; beraz, lagunarena bakarrik har dezaket."

MILAK TXAKURRA DAUKA

Bazen behin Mila izeneko neska polit bat. Begi urdinak, ile horia eta argal-argala zen. Beti joaten zen parkera txakurrarekin paseatzera.

Egun batean Diki korrika hasi eta Milari ihes egin zion. Orduan neskatilak negarrez bere lagunei deitu zien: Markel, Aimar, Lucia, Celia, Naia, Mikel, Hugo eta Iman.

- *Non dago zure txakurra?* -galdetu zioten lagunek.

- *Galdu egin dut!* -erantzun zuen Milak.

Polizia batengana joan ziren eta esan zien:

- *Diki du izena eta pastor alemana da*.

Guztiak batera mendira abiatu ziren eta poliziak errekaren ondoan aurkitu zuen:

- *Diki! Diki! Etorri!* Ohiukatu zion Milak.

Gaua heldu zen eta guztiak etxera joan ziren poz-pozik.

BRONTXO

Bazen behin Brontxo izeneko dinosauru txiki bat, haragi jalea zen eta amatxorekin joaten zen ehizatzera. Egun batean mendira joan ziren, baina Brontxo zulo handi batera erori zen.

Brontxo oihuka hasi zen:

- *Ama! Ama!*

- *Brontxo non zaude?* -esan zion amak.

Baina amak ez zuen entzuten. Gaua heldu zen eta inork ez zuen Brontxo aurkitzen. Negarrez hasi zen eta Tiranosaurus Rex batek entzun zion. Beregana hurbildu eta buztan luzea zuloan sartuz atera zuen. Orduan ama agertu zen oso kezkatuta eta Tiranosaurus Rexi eskertu egin zion Brontxo salbatzea.

MENDIAN GALDUTA

Bazen behin Celia izeneko neska bat zazpi urte zeuzkana. Mendira joan eta galdu egin zen. Orduan mobila poltsikotik atera eta Markeli deitu eta esan zion:

- *Lagundu! Mendian txakurrarekin galduta nago. Azkar etorri hotz handia egiten du!*

- *Ongi, oraintxe noa!* Bitartean Lunak gidatu zaitzala.

Markel Celiaren bila abiatu zen eta asko ibili ondoren Lunaren zaunkak entzun zituen. Korrika joan zen eta han ikusi zituen Celia eta Luna. Guztiak poz-pozik jaitsi ziren herrira eta izugarrizko “merendola” egin zuten. ■

Ameriketara joan nintzen...

Aita-semeak kalean, eta aitak esaten dio semeari:

-Begira, Mikel, ikusten al duzu gizon hori?

-Bai.

-Bada, begira, gizon hori joan zen Ameriketara alpargata pare batekin, eta etorri zen 80 milioiekin.

-Eta zer egin behar du hainbeste alpargatarekin?

Santu Guztien egunean Derioko hilerrian gertatutakoa.

Bilboko familia bat loreak jartzen ari da hildako senideen hilobiaren gainean. Aldameneko hilobian, berriz, Txinatik etorritako gizonezko bat arroz platertxo bat ari da uzten.

Hori ikusita, bilbotarrak barre-algarari ezin eutsiz, eta eskuarekin barre-eztulak disimulatu nahian, txinatarraz trufatzen ari dira. Osatzen duten multzotik alaba zaharrena atera eta txinatarrarengana inguratuz:

-Eta zuek zer uste duzue? Hildakoak gauez esnatu eta arroza jaten hasiko direla edo?

Eta txinatarrak:

-Bai, noski! Zuen hildakoak loreak usaintzera jaikitzen diren ordu berean.

Trapu gorria

Joan zan gizon bat traktorean trankil-trankil, eta halako baten bajatorko atzetik motor bat, joten dau traktora eta hogei metro inguruan han doa hegaz. Badoa traktorekoa arrapaladan eta dinotso:

-Zeozer egin dozu, zeozer egin dozu?



Eta besteak:



-Hurrengoan trapu gorri bat edo, ipini atzean!

-Bai! Traktora ez dozu ikusi, eta trapu gorria ikusiko dozu zuk!

Sinesbera

Bi autoek elkar jo eta txiki-txiki eginda geratu dira. Gidariak ordea, bata gizona eta bestea emakumea, onik atera dira istriputik:

-Hau sinestezina da -esan du emakumeak autotik atera bezain pronto. *Gure autoak ezertarako ez direla geratu dira eta gu biok ordea onik. Zu gizona zara, ni emakumea... Guzti hau Jainkoaren seinale bat da. Berak elkar ezagut dezagun nahi izan du*.

-Ba bai, ni neroni ere zeharo harrituta nago, eta bat nator zurekin -aukera alferrik galtzeko inolako asmorik gabe. *Jainkoaren nahiak elkartu gaitu* -erantzun dio gizonak.

-Eta begira -esan dio emakumeak bere autoaren hondarren artean begiratzen ari den bitartean. *Hau beste mirari bat da! Autoa guztiz apurtuta, eta erosi berria nuen ardo-botila garesti hau osorik! Jainkoak gure zorte ona ospa dezagun nahi du*.

Gizonak buruarekin baietz esan, botila zabaldu eta tragoxka luze bat eman dio, urduritasunez, ia botila erdia hustuz. Orduan botila emakumeari luzatu dio, baina honek ezetz:

-Baina zuk ez al duzu edan behar edo? - beste tragoxka bat emanez.

Eta emakumeak:

-Ez, ez, ez. Ni ertzaintza etorri bitartean, zain egongo naiz. ■

"Eskara Zainduz" izenarekin egin ohi genuen bere garaian atal hau. Aspaldian utzita bagenuen ere, hemen da berriro euskararen zuzentasun eta jatortasuna lantzeko atala.

1. Arabako Errioxan ba al dago euskaraz zerbitzatzen duen tabernarik?

a) Bai, herri askotan. Bastidan, Biasterin eta ere bai Oionen.

b) Bai, Biasterin, Bastidan eta ere Oionen.

c) Bai. Bastidan, Biasterin eta Oionen ere bai.

2. Zenbatek ikasi dute bertsotan?

a) Lauk

b) Laurek

c) Laurak

3. Azkenean zenbatek erosi zuten kamiseta?

a) Hiru etorri ziren ikustera eta hirurak erosi zuten.

b) Hiru etorri ziren ikustera eta hiruk erosi zuten.

c) Hiru etorri ziren ikustera eta hirurek erosi zuten.

4. Zein da zuzena?

a) Ordenagailu hauek hondatutak daude.

b) Pellotaz galdetu dute telefonoz.

c) Pianoa jotzen, pianoa joz ikasten da.

5. Erronka eta apustuetan:

a) Ez duzula 50 kiloko harria altxatzen!

b) Ezetz 50 kiloko harria altxatu!

c) Ez duzu 50 kilotako harri altxatzeko barrabilik!

6. Zer ordu da?

a) Hamaiketara doa.

b) Hamaikak burutik jota daude.

c) Hamaikak bost minutu faltan.

7. Zer berri?

a) AC/DC Oionera ekarriko dutenaren zurrumurrua zabaldu da.

b) AC/DC Oionera ekarriko dutelaren zurrumurrua zabaldu da.

c) AC/DC Oionera ekarriko duten zurrumurrua zabaldu da.

8. Ttiki-ttakako kamiseta erosiko duzu?

a) Noski baietz!

b) Bai, noski!

c) Noski erosiko dudala.

9. Zein da okerra?

a) Ondo ematen dizu Ttiki-ttakako kamisetak

b) Atentzioa deitzen du kamiseta berriak.

c) Atzekoz aurrera jantzi duzu.

10. Zein da zuzena?

a) Goizean agurtu dizut baina ez didazu kasurik egin.

b) Nik ez dizut jo, ni ez naiz izan.

c) Mikel, hemen itxarongo dizut.

11. Batean ez beste guztietan bada deklinabide akatsen bat, zein da zuzena?

a) Hiru gizon gaiztori eskatu diet.

b) Zenbait bazkideei ez zaie atal hau gustatzen.

c) Hainbat garagardoek apar gehiegi dute.

12. "Ez du ezertxo ere ez ikasi", zer dago gaizki?

a) "Txo" hori soberan dago.

b) Ondo dago.

c) Bigarren "ez" hori.

13. "Euskaraz egingo badu, ikasi egin beharko du", zer esan nahi du?

a) Euskaraz hitz egiten badu ikasiko duela.

b) Euskaraz hitz egin nahi badu, lehenengo ikasi egin beharko duela.

c) Ikasiz gero, egingo duela larrutan.

14. "Ttiki-ttakan ez dugu Faustino Bodegan adinako dirutzarik", zein da parekoa?

a) Ttiki-ttakak baino dirua gehiago du Faustino Bodegak.

b) Ttiki-ttakan ez dugu Faustinon hainbeste diru.

c) Faustino Bodegak Ttiki-ttakaren aldean diru asko du.

15. Zein da okerra?

a) Zigarroarekin ahoan sartu zen bilerara.

b) Zigarroa ahoan sartu zen gelara.

c) Zigarroa ahoan zuela sartu zen gelan.



- 0-5: nahita egin duzu edo…

- 5-9: azterketa bat baiitz, ez gai aterako zenuke. Zeuk ikusi baina aukerak badituzu zure euskara hobetzeko: mintzalagun taldearen bat, bertso-eskolan izena eman…

- 10-14: komeniko litzateke mintzalagun taldeetan zu bezain ongi jardutekо gauza den norbait egotea, animatzen zara?

- 15 asmatu badituzu dei ezazu Euskaltegira, irakasle gutxitxorekin dabiltza eta.

1.c / 2.a / 3. c / 4.c / 5.b / 6.a / 7.c / 8.b / 9.b / 10.c / 11.a / 12.c / 13.b / 14. c / 15.a

DODOT

TXORIZOA
ETA
ARDOA
2€

non gogoa han zangoa

Ttiki-ttakaren bazkidea izateko

Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera.
Kuotari dagokionez, 20 euro dira urtean eta gazteentzat borondatea.
Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri.

Deiturak_____ Izena_____

Jaioteguna_____ Helbidea_____

Herria_____ Pta.Kodea_____ Tfnoa_____

Banku-Aurrezki kutxa_____ Sukurtsala_____

KK edo libreta zkia_____

Data_____

Sinadura